

# Aretxagazeta

AKORDEOI ORKESTRA

## Danimarkatik bueltan



ETA GAINERA...

**Ze barri?**

ASTEKO GAIA  
Jolasak eta kantuak  
euskaraz /8

HURRETIK  
Ibon Segura /9

LEINTZ GATZAGA  
Ludoteka umeen  
gozagarri /10

ELKARRIZKETA: JUANJO OROBENGOA/4 • KIROLA: UDAKO FUTBOL TALDEAK/6



**GUARDIAKOFARMAZIA**

**ZAPATUA, 27**  
FRAILE J. Mitarte, 18. .... 943 79 21 99

**DOMEKA, 28**  
FRAILE J. Mitarte, 18. .... 943 79 21 99

**TELEFONOJAKINGARRIAK**

**OROKORRAK**

Almen ..... 943 71 49 07  
Aretxagazeta ..... 943 79 86 21  
Fax ..... 943 77 18 54  
Basotxo ..... 943 77 09 81  
Euskaltegia ..... 943 79 21 68  
Gizarte-Lagontzailea ..... 943 71 18 62  
Hezibide Elkarte ..... 934 79 31 32  
Industrialdea ..... 943 79 62 80  
Instituta ..... 943 79 79 00  
Kiroletxea ..... 943 71 26 28  
Kultura etxea ..... 943 71 10 27  
Kurtzebarri Eskola ..... 943 79 00 49  
Kurtzebarri BHI ..... 943 79 57 40  
Liburutegia ..... 943 71 18 62  
Loramendi EE ..... 943 77 09 70  
Ludoteka ..... 943 79 05 81  
Mankomunitatea ..... 943 79 30 90  
Murruxo M.E ..... 943 79 93 74  
Musika Eskola ..... 943 79 36 50  
Osasun zentroa ..... 943 79 74 58  
Otalora ..... 943 71 24 06  
Parrokia (Bulegoa) ..... 943 79 18 42  
Pausoka Haur Esk. .... 943 77 03 77  
Postetxea ..... 943 79 28 31  
Santa Rita Ikastetxea ..... 943 79 17 00  
Saretxo ..... 943 71 26 56  
Taxi Geltokia ..... 943 79 22 33  
Udal Bulegoak ..... 943 71 18 62  
Udaltzaingoa ..... 943 71 18 63  
Urats Gain ..... 943 79 99 11

**UDALTZAINGOA**  
Arrasate ..... 943 79 14 39

**LARRIALDIK**

SOS Deiak ..... 112  
Eskualde-Ospitalea ..... 943 03 53 00  
Ertzaizta ..... 943 79 71 99  
Gurutze-Gorria ..... 943 76 55 76  
Larrialdia ..... 943 46 11 11  
Suhiltzaileak (Onati) ..... 943 78 28 00

**MEZAK**

**ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA**  
Domekak: 11:00, 12:00  
Zapatuak: 19:30  
Lanegunak: 19:30

**SANTA RITA**  
Domekak: 09:00  
Zapatuak: 18:30  
Lanegunak: 08:00

**BASERRI-AUZOETAN: LARRIÑO**  
Domekak: 12:30

**MENDIOLA**  
Domekak: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

**GELLAO**  
Domekak: 11:30

**OHARRAK**

**GRAFOLOGIAKO 2. IKASTAROA**  
Kultura Sailak grafologiaren gaineko bigarren ikastaroa jarri gura du abian. Ikastaroa azaroaren 3tik aurrera emango da. Informazio gehiago kultura etxean jasoko duzue.

**YOGA, MUGIMENDU KONTZIENTEA ETA SHIATSU**  
Aretxabaletako Zainduz gimnasioak hainbat ikastaro antolatu ditu azarorako. Datorren hilaren 6an, esaterako, Yoga hasiko da, azaroaren 24an, berriz, mugimendu kontzientearen gainekoa, eta, azkenik, azaroaren 17 eta 18an, Shiatsuko hastapen tailerra egingo da.

**ARATZEKO ZOZKETAREN ZENBAKI SARIDUNA**  
Aratzek urtero Gastronomia eta folklore jaialdian egiten duen zozketako zerbaki sariduna 1.386 izan da aurten.

**ENKARTELADA MUGIKORRA**  
*Konponbide demokratiko baten alde, presoak etxera lelopean, urriaren 27tik aurrera, zapaturo, Mitarte plazatik irtenda enkartelada mugikorrek egingo dira arratsaldeko 19:30ean. Amnistiaren Aldeko Komiteak parte hartzera animatu gura ditu herritar guztiak.*

**LORAMENDIRENAGENDA**

**MAKROBIOTIKAREN GAINEKO HITZALDIA**  
Jesus Larretxeak makrobiotikaren gaineko hitzaldia egingo du hilaren 30ean Loramendiko egoitzan, arratsaldeko 19:00etan.

**DIAPOSITIBA EMANALDIA**  
Oier Sarasuak Guatemala-ko diapositibak eskainiko ditu azaroaren 8an Loramendiko egoitzan, arratsaldeko 19:00etan.

**ORAINDELA 7URTEARETXABALETAN**

**Juan Ramon zenaren omenez, 4. memoriala**

Giro polita izan zen nagusi 1995. urtean Juan Ramon Aranaren omenez egindako 4. memorialean. Lasterketa urriaren 22an jokatzen zen, eta guztira 112 korrikalarik parte hartu zuten. Onena, senior mailan, ondoko argazkian azaltzen den Abdel Mayid marokoarra izan zen.



**BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

*"Txoliñe"*

Pertsona barritsu eta kaskariñe (emakumien gaiñien, batez be).



**ZORIONAGURRAK**



ARETXABALETA  
**Oxel Olobarren**  
24an, 7 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



ARETXABALETA  
**Yolanda San Martín**  
25ean. Urte askotarako! Koadrilakoen partetik.



ARETXABALETA  
**Larraitz Berezibar**  
26an, 6 urte. Urte askotarako! Musu bat. Etxekoak.



ARETXABALETA  
**Maialen Marrodán**  
26an, 15urte. Zorionak, zure familiaren partetik.



ARETXABALETA  
**Leire Zubillaga**  
26an, 4 urte. Musu handia! Etxekoak.



ARETXABALETA  
**Antxon Azkarate**  
27an, 8urte. Urte askotarako! Etxekoak.



ARETXABALETA  
**Amaia Merino**  
30ean. Urte askotarako! Saioa, Gaizka eta Kokoren partetik.

**BABESLEA**

**Zorionak denoi !!!**  
Foto  
**Urkiola**  
Argazkidenda  
HERRIKO PLAZA 5  
20550 ARETXABALETA  
TELEF 943 79 39 20

- \* ESTUDIOAK
- \* ESKONTZAK
- \* JAUNARTZEAK
- \* ENMARKAZIOAK
- \* DIGITAL LANAK
- \* KAMARAK ....

*Beti karretean edo albuma dohanik !!*

**Lasai**

Mirian Manteca  
**MASAJISTA**

Masaje terauperikoan  
Posturen azterketa eta  
egokitzean  
diplomatua

Lezama merkatal zentrua  
Santa Kurtz, 24 etxabea  
20550 Aretxabaleta

Tel.: 943 77 04 34

**Mobiliario ARENAZA**

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia,1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA



**BASTER ALDE jatetxea**  
**SASOIKO JAKIAK GIRO ONENEAN!**


Galartza auzoa Tel.: 943 79 24 58 ARETXABALETA



## ATREBENTZIAEZPADA/ Etxe azpixon graffitixak margoketan dabitz. Ze pentsetan jatzu?




**MAIALEN VÁZQUEZ**  
Ikaslie




**JOAKIN ROCHA**  
Jubilaue



**BERNA PASTOR**  
Langillie



**IMANOL CARMONA**  
Langillie



**SHEYLA ALBERDI**  
Ikaslie



**ANGEL HIDALGO**  
Langillie

Graffitixek margoketie ondo pentsetan jat, baiñe egin dittuen marrazkixek ez jat bat be gustetan. Beste modu bateko marrazkixek egingo balittue, konformiau egongo nintzen.

Ez jat bat be gustau egin dittuen marrazkixek. Beste modu batekuek izen ezker, garbixagoek edo politagoek, ez litxakit hain txarto pentsauko, baiñe honeik ez jat gustetan.


Ez jat ondo pentsetan leku horretan egittie, etxe azpixon ez die horretarako. Etxiek-eta errespetau egin biherko litzakez, eta marrazkixek horretarako jarritteko lekuetan egin.

Niri ondo pentsetan jat, marrazkixek politte die eta kolore apur bat emuten dutzie kalie. Hori bai, egin leikien lekuen egin biherko leukie, eta ez bakotxak gure dauen lekuen.

Marrazkixei ez dutziet zentzu haundirik topetan, gairera, sosuek diela uste dot. Polittagoek izen ezker, ondo pentsetan jat etxe azpixon margoketie, baiñe oinguek ez jat gustetan.

Ez jat txarto pentsetan, zeatik ez dittue egingo ba? Hutsik dauzen hormetan marrazkixek egindde, kalie kolore apur bat emuten dutzie eta animau egitten dittue.

### TXALOAKETATXISTUAK



**TXISTUAK ZINEMA** Udazken sasoian sartu gara, eta zapatu edo domeka arratsaldetan zinera joatea ez da aukera txarra. Nagusi asko Gasteizera joaten da, baina gazteak, 18 urte artekoak, herrian geratu behar, gura edo gura ez. Aretxabaletan, berriz, non dago zinea? Egon herriko plazan dago, baina aspaldian, itxita. Hiru urte itxita egon ostean, bada zerbait egiteko ordua. /MIRARI ALTUBE

### ETABARRUAN...

<p><b>ELKARRIZKETA / 4</b></p> <p><b>Juanjo Orobengoa</b></p> <p>Danimarkan izan ostean, Europako Akordeoi txapelketarako prestaketa lanak hasi dituzte.</p>	<p><b>ASTEKO BERRIA / 5</b></p> <p><b>Bainuetxera doan bidea</b></p> <p>Bainuetxeko industrialdera doan bidea zabalik dago, nahiz eta lanak oraindik bukatu barik egon.</p>	<p><b>KIROLA / 6</b></p> <p><b>UDAko futbol taldeak</b></p> <p>Udako futbol talde gehientsuenek oso ondo eman diote hasiera denboraldiari.</p>
--	---	--

### ASTEKODATUA

# 25

#### MILIOI JASOKO DITU UDALAK FORU ALDUNDITIK

Foru Aldundiek daukaten Solidaritate Fondotik 2.261 milioi banatuko dira Gipuzkoako udalen artean. Aretxabaletari, biztanleko 66.000 pezeta inguru tokatzen zaizkio.

### BESTEKEESANA

**“Joko ona egitea eta irabaztea osagarriak dira. Hala ere, partiduak irabazteari lehentasuna ematen diot, emaitzek agintzen dutelako futboleant. Dena dela, gauzak ondo egiten badira, emaitzak etortzen dira normalean. Onena hori izaten da: irabaztea, ahal izanez gero, joko ona eginez, eta zaleak konbentzitu. Ibarren jokatzeko ditugun partiduetan zaleek asko motibatzen gaituzte eta erosoago jokatzeko dugu. Etxeko azken partiduan, Elgoibarren aurka jokaturakoan, 700 zale inguru izan ziren, eta hori eskertzekoa da. Etxetik kanpora, berriz, mesfidantzaz apur batez jokatu izan dugu orain arte. Ez dugu gure benetako maila ematerik izan. Ea liga aurrera joan ahala etxean zein kanpoan berdintsu jokatzeko dugun.**

**ENRIQUE NIETO**  
GOIENKARIA/01-10-19

### HERRITARRENBERBAK/ Lore Abarik



*Zibereuskar@z*

**A**zken bi urte hauetan, ordenagailuen erosketak gora egin du, konexioak bikoiztu egin dira, baina euskara eta euskaldunok, prestatuta al gaude interneten hedapen azkar honetarako? Internetek, aldaketa izugarriak ekarriko ditu. Batzuk diote, globalizazioaren ondorioz gutxiengo hizkuntzak zantzuak izango direla, baina ni ez nago batere ados. Buruaz jokatzeko badugu eta gure gizarteak behar bezala prestatu, internet, euskara eta euskaldunon baliabide indartsuena izatera hel daiteke.

Interneten euskararen presentzia handiagotzea izan beharko genuke helburu. Gai ezberdinetako informazioa euskaraz kontsultatzeko aukera. Modu baten esateagatik, gaur gizartean dauzkagun lantegi, erakunde, hiztegi, zerbitzuak orokorrean, internetera euskaraz eramaten saiatu beharko gara, eta bertan horrelako Euskal Herri birtual

bat egin, euskaraz konekta gaitzen. Euskarak berak ere irabazi handiak izango ditu, euskal terminologia, hiztegia, aberastu egingo delako eta beti euskararen egoerari buruz hitz egiteko, arlo guztietan euskaraz hitz egiteko aukerara pasako garelako.

Baina guzti hau egiteko euskal gizarteak prestatu egin behar da: ikastetxe eta unibertsitateetan esaterako, informatika derrigorrezko ikasgaia izatera heldu beharko litzateke epe laburrean (ez teknikoetan bakarrik); euskararen normalizazio planaren barruan, web orriak, atariak euskaraz egiteagatik dirulaguntzak egon beharko liratezke; bilatzailea, merkataritza elektronikoa bezalako hitzak, normaltasun osoz ulertu eta erabiltzera ohitu beharko gineteke, ...

Teknologia Berriak badatoz, eta euskaraz prestatu behar diegu ongietorria. P.D.: Kilometroak, Korrika..., “Zibereuskar@z” bat noizko?

**“Kilometroak, Korrika... “Zibereuskar@z” bat noizko?”**

# Aretxagazeta

Durana 11  
20550 ARETXABALETAKO  
Tel.: 943 79 86 21  
Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA  
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA  
Mirari Altube  
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA  
Goio Arana

PUBLIZITATEA  
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA  
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA  
SS-378-94

ISSN  
1134-2609

TIRADA  
4.100 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:







## BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

## New look?

Aurpegi berriaz azaldu zen aurrekoan gure aldizkaria. Eta zer-nolako aldaketa! Niri neuri, behintzat, gustatu zait. Ze demontre! Noizean behin aldaketatxo bat ondo etorten da, eta orain, gainera, astero-astero irakurriko ditut herriko kontu eta xelebrikeriak. Hala ta be, barren-barrenean zerbaitek min egin dit. Aldizkaria goitik behera aldatu dute, eta ni lehenetan utzi naute. Ile apaindegira gus-tura joango nintzateke ni neu ere, ea hurrengorako moda-modako orrazkera egiten didaten.

Aldaketa kontuak alde batera utzita, domekan herriko plazan izan nintzen, eta tripa edarto bete nuen. Txikiteoan ibili nintzen, "ribeiroa" lehenengo, "finoa" gero, dena edarra zegoen. Patxarana probatu ez nuela-eta, penaz joan nintzen etxera. Sikiera patxaran lehiaketako epaimahai izango banintz... **Amaia Isasi-sasmendi** eibartarraren patxaranari eman zioten lehen saria. Bigarrena etxekoari, **Jose Lonbide-ri**, eta hirugarrena **Markel Irizarri**. Izen hauek ezagunak egiten zaizkit, beti berdinek irabazten ez ote duten... hurrengorako ni ere kontuan izan epaimahakide izateko. Jose Lonbidek bat behararren bi sari eskuratu zituen. Aretxartek atxabaltar onenaren patxarana sari-tu zuen, eta bainuetxe batera joateko txartela ere jaso zuen. Hori da hori zortea izatea!

## ELKARRIZKETA

JUANJO OROBENGOA/ARETXABALETAKO AKORDEOI ORKESTRAKO ZUZENDARIA

# "Martxoan Europako nazioarteko akordeoi txapelketa egingo da eta joatekotan gaude"

MIRARI ALTUBE

Danimarkatik etorri berriak dira eta dagoneko datorren urteko Pragako txapelketan pentsatzen hasi dira. Momentu hobean ere egon dira, baina Juanjok badaki aurrerantzean zaila izango dela gaurko maila lortzea.

## Zer moduz Danimarkan?

Oso ondo. Orain urtebete inguru, Danimarkako Allerod herriko Akordeoi Orkestra izan zen gure artean, eta orain bisita itzuli diegu. Denetik egin dugu han, hainbat kontzertu eman ditugu, baina leku berriak bisitatu eta ondo pasatzeko aukera ere izan dugu. Anekdotak eta kontakizunak beteta etorri gara; izan ere, musika entzuteko egokitutako lekue-tan jo dugu, eta hori ez da edonon topatzen. Baina Lego parkean jotzea ere tokatu zitzaigun, hainbat partiturak hara eta hona eroaten zizkigun bitartean.


## Zer moduz hartu zintuzteten?

Primeran. Oso harrera ona egin ziguten eta adiskide zaharrak izango bagina bezala hartu gintuzten euren etxeetan. Kopenhage eta inguruak erakutsi zizkiguten, gazteluetara joan ginen, bolatoki amerikarrek bazkaldu, jolas parkeetan ibili... Agur esateko orduan batek baino gehiagok negar egin zuen, oso lagun onak egin dituzte-eta neska-mutikoe-k.

## Zer moduz dago taldea momentu honetan?

Oso ondo, nahiz eta ezin egin gura beste entsegu. Hemeretziatik hamalau bat kanpoan ikasten dabilta, unibertsitatean, eta asteburuak baino ez zaie gelditzen entseguetara etortzeko. Lehen, denboraldi batetik bestera programa osoa aldatzen genuen, baina orain ezin dugu, abesti berri pare bat ikastearekin konformatzen gara.

## Txapelketaren batera joateko asmoa daukazu...



MIRARI ALTUBE

*"Oso harrera ona egin ziguten eta adiskide zaharrak bagina bezala hartu gintuzten"*

Bai, martxoan, Europako nazioarteko akordeoi txapelketa egingo da, eta joatekotan gaude. Ez da samurra izango, Kroaziako taldeek, gainera, oso maila handia daukate-eta, baina gure maila ematen ahaleginduko gara, ez da txarra-eta. Txapelketan bi abesti landu beharko ditugu, bata

*"Ez da samurra izango, baina gure maila ematen ahaleginduko gara, ez da txarra-eta"*

derrigorrezkoa eta bestea hamabost minutuko programa librekoa. Derrigorrezkoa ikasten hasi gara, eta librekoa aurrerago erabakiko dugu zelan moldatu.

## Beste emanaldirik egingo duzue?

Bai, urtea bukatu baino lehen, Lasarteko Orkestra etorriko da.

*"Datorren urtean, 10. urteurrena beteko dugu eta zerbait berezia egin gura genuke"*

Datorren urtean, ostera, hamargarren urteurrena beteko dugu eta zerbait berezia egin gura genuke. Euskadiko Gazte Orkestrak ekartzea ez legoke txarto, baina kontzertua emateko leku egokirik ez daukagu; Kiroletxearen agian, baina oso leku hotza da. Edakik zer egingo dugun...

*Okindegia - Gosategia*

**Aretxabaleta**

Loramendi, 6 • 943 77 17 19  
Basabe, 2 • 943 77 00 81  
Aretxabaleta  
**Bertako okina**

**Dorleta taberna**

*Bezereen zerbitzura*

Loramendi, 8  
Aretxabaleta  
Tel.943 79 94 15

**ANDRA MARI**  
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3  
ARETXABALETA  
Tel. 943 79 29 26

**AMETS TABERNA**

Iparagirre, 4  
Tel: 943 79 01 29  
**ARETXABALETA**



**HIRIGINTZA/** Lanak egin dituen enpresari isuna jarri edo ez erabakiko du Udalak bide inguruko txukunketa lanak bukatzen direnean

# Bainuetxeko industrialdera doan bidea zabalik dago guztiz bukatuta ez egon arren

MIRARI ALTUBE

**Bainuetxeko industrialdera doan bidea zabalik dago dagoeneko. Hala ere, ingurua txukuntzea falta da oraindik, eta laster egitea espero bada ere, ezin seguru esan, bidearen lanek atzerapen handia izan dute-eta. Azkeneko pausoa, ostera, izena jartzea izango da.**

Oraindik ez da erabat egokitu Bainuetxeko industrialdera doan bidea, baina dagoeneko zabaldu dute, autoak Arkarazo eta Mendiola auzoetara joan daitezten. Lanik garrantzitsuenak eginda badaude ere, oraindik txikikeria batzuk falta dira, jarritako farolei argia ematea, esaterako.

**UDALAK ISUNA JAR DAKIOKE**


Bidearen lanak asko atzeratu dira, eta lanak egin dituen enpresa eraikitzaileak behin baino gehiagotan huts egin du jarritako epeak betetzeko orduan. Olaia Etxenausia Udaleko Hirigintza teknikariaren esanetan, obrek, hasi zirenean, sei hilabeteko atzerapena izan zuten. Bukatze data,

bestalde, uztail hasieran bazuten ere, urriaren azkenetan oraindik ezin da esan erabat bukatuta daudenik. Obrak egin dituen enpresarekin hitzarmena sinatzerakoan, epeak bete ezean Udalak neurriak har ditzakeela esan zen. Gobernu batzordera ere eragan zen kexua Hirigintza batzordetik orain dela hilabete batzuk. Momentuz, Udalak ez du erabakirik hartu, eta lanak erabat bukatu arte itxarongo du.

**BI IZEN PROPOSATU DIRA BIDEAREN ZAT**

Autoentzat zabaldu berri den bide edo kale berri honek izena behar du orain. Udalak Aitor Antxia Leturiari toponimiarekin lotutako izenak proposatu zitzaion eskatu zion. Bi izen eman ditu Aitorrek: batetik, Azatzako Iraban baserri ingurutik Bainuetxera datorren errekatxoaren izena, Olatza; bestetik, XIX. mendean Bainuetxeko inguru guztiari ematen zitzaion izena proposatu du, Usaineta.

Orain, Udalak du azkeneko berba, eta bidea guztiz bukatu eta ingurua txukuntzen denerako erabakia hartuta izango du.



Oraindik ez dute erabaki zein izen jarriko dioten bide berriari. Udalak bi proposamen jaso ditu, Olatza eta Usaineta.

MIRARI ALTUBE

## Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak ARETXAGAZETAren bidez! Ekar ezazu bere argazkia\* eta emaiozu ezusteko ederra! **Doan!** Durana 11n gaituzu.

\*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.  
Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.  
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra ARETXAGAZETAren agertu ondoren.  
Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.





FUTBOLA

# Oso ondo hasi dute denboraldia UDAko futbol talde gehientsuenek

UDAKo preferenteko taldea oso ondo badabil ere, erregional mailako taldeak emaitza bikainak lortu ditu partidu guztiak irabazi eta 23 gol sartuta.

MIRARI ALTUBE

Futbol denboraldia aurrera doa eta UDAko talde gehienak oso ondo hasi dira. Preferenteko taldea lehenengo postuan dago 19 punturekin. Bigarren mailako erregionalako taldea ez da atzean geratu eta jokatuako partidu guztiak irabazi ditu. Lehenengo mailako kadeteak ere lehenak dira. Jarraitzaileak, ostera, oso pozik dabilta, eta horren adierazgarri, partiduetara joaten den jende kopurua.

UDAKo futbol talde gehientsuenek denboraldia bikain hasi dutela esatea ez da gehiegikeria, izan ere, hiru talde, preferentekoak, bigarren mailako erregionalakoak eta lehenengo mailako kadeteak lehenak dira sailkapenean. Bigarren mailako gazteak eta kadeteak ere ez dabilta batere gaizki, ezta infantilak ere, nahiz eta sailkapeneko erdialdean egon. Gazteen Euskal Ligako taldea da gaizki dabilen bakarra, azken postuan, baina era berean, ulertzekoa da emaitza txarrak lortzea, iazko taldea erabat desegin eta jokalarik gazteak sartu dira-eta denboraldi berrian.

**BIGARREN MAILAKO ERREGIONALA**  
Bigarren mailako erregional taldeak oso liga berezia jokatu



MIRARI ALTUBE

Bigarren mailako erregionalako jokalarik guztiak agertzen dira entrenamenduetara, eta hori partiduetan igarri egiten da.

du. Zazpi edo zortzi taldez osatutako lau liga daude, eta hementik eta Gabonetara bitartean jokatuako partiduetan lehenengo lau taldeak baino ez dira sailkatuko. Ostean, lau ligetako lau taldeek elkarren aurka jokatu dute eta hiru onenak lehenengo mailako erregionalera igoko

dira. Martin Garai taldeko arduradunaren esanetan, helburua lehenengo lau taldeen artean sailkatzea da, gero lehenengo mailako erregionalera igotzeko aukera izateko. Helburua betetzera doazela dirudi, izan ere, partidu guztiak irabazi dituzte eta golak sartzen ere ez dira atze-

an geratu: bost partidutan 23 gol egin dituzte. "Jokalarik entrenamenduetara fin-fin etortzen dira eta hori partiduetan igarri egiten da, guk gol asko sartu ditugu eta guri lau baino ez dizkigute sartu. Aurten, gainera, inoiz baino hobeto gabilta txar-telei dagokionez, oso gutxi atera

dizkigute-eta", dio Martinek. Zapatuan etxean jokatu dute, eta giro polita egongo da Ibarra futbol zelain.

## KADETEAK ETA PREFERENTEA

Lehenengo mailako kadeteak ere ez dabilta batere gaizki. Oso liga gogorra da kadeteena: 16 taldek osatzen dute liga, eta lehia handia dago. Hala eta guztiz, maila igotzea daukate helburu 13 eta 15 urte bitarteko mutiko horiek.

Preferentea ere oso ondo dabil, etxean hobeto kanpoan baino. Oso giro ona ei dago taldean, eta hori nabari egiten da lan egiteko orduan. Hala ere, jokalarik lesionatzen hasi dira eta asteburu honetarako dagoeneko lau jokalarik sartu dira. Enrique Nieto entrenatzaileak. Rafa Etxandiaren esanetan, domekaz domeka ikusi beharko da zelan doan preferentea, lan handia egin beharko du-eta lehenengo postuari eutsi gura badio. "Momentuz, mailari eustea da gure helburua, baina liga aurrera doan neurrian indartsu jarraitzen badugu, igoeran pentsatzen has gaitezke", dio Rafak.

Aste honetan, bestalde, eskolaz kanpoko kirol ekintzak hasi dira. Futbol Zazpi deritzon liga zapatuan hasiko da, eta neskek osatutako talde batek ere parte hartuko du, Kurtzebarri eskolako ikasleak guztiak.

## Aste honetan bukatuko da pilota liga eta laurden erdiak hasiko dira

M.A.

Aste buru honetan bukatuko da Gipuzkoako pilota txapelketako liga, eta datorrenean bigarren atalari emango zaio hasiera, laurden erdiak jokatu hasiko dira hain zuzen.

### SENIORRAK ETA JUBENILAK

Aretxabaletako talde guztiak ez dira sailkatu baina hiru ordezkari izango ditugu, senior mailako bi taldeak eta lehenengo mailako jubenetako talde bat. Senior mailan batetik, Errasti anaiak eta bestetik, Josu Lasagabaster

eta Aitor Alzola daude. Jubenetan, ostera, Uriarte eta Oion bikotea dira sailkatutakoak.

Ikusi egin beharko da zapatu honetako partiduetan zer egiten duten gure pilotariek, baina finalera heltzeko aukerak ere izan ditzakete.

## KARTELDEGIA

### FUTBOLA

Ordizia-UDA  
Preferentea.  
Zapatua. 16:00. Ordizia.  
**UDA-Amaikak bat**  
Bigarren mailako erregionala.  
Zapatua. 16:30. Ibarra.

### PILOTA

Aretxabaleta (2)-Oskarbi (Elgeta)  
Seniorrak.  
Zapatua. 19:00.  
Iturrigorri.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

UDA 2 Urola 1  
Preferentea.  
**UDA 2 Barakaldo 2**  
Gazteen Euskal Liga.  
**Gazteak 2 UDA 6**  
Bigarren mailako erregionala.  
**UDA 4 Aurrera 1**  
Bigarren mailako jubenilak.  
**Eibar 1 UDA 2**  
Lehenengo mailako kadeteak.  
**UDA 8 Urki 0**  
Bigarren mailako kadeteak.

### PILOTA

Aretxab. (1) 22-Arrasateko 17  
Arrasateko 22-Aretxab. (2) 14  
Lehenengo mailako gazteak.  
Aretxab. (1) 22-Arrasateko 4  
Arrasateko (1) 16-Aretxab. (2) 22  
Seniorrak.

Aretxab.-Arrasateko  
Bigarren mailako kadeteak.  
Intxaurren-Aretxab.  
Bigarren mailako gazteak.  
(Bak bertan behera)



**MEMESA**

Industri hornidurak

Tel.: 943 71 24 11 / Fax: 943 71 21 19  
ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP

*Garbiketa  
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea  
ARETXABALETA  
Tel: 943 79 01 28



FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak  
Ongarriak- Haziak


Mitarte, 7 behea  
ARETXABALETA  
Tel.943 77 00 33/79 42 56

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK



**URKULU, S.L.**

Mitarte, 23  
ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 96 66  
Fax: 943 77 10 33



**UMEENDAKO  
MODA**

Lezama merkatal zentrua, 15  
943 77 14 86  
Aretxabaleta



ERRETRATUZHARRA

# Domund Egunean, misioetarako antzerkia

**G**arai baten antzerki ugari egiten zen Aretxabaletan. Gehienak dirua batzeko egiten ziren, gero misioetara bidaltzeko. Neska-mutil batzuek elkartu eta, parrokiaren bitartez, antzerkia egiten zuten. Gero, antzezlana ikusteko sarrerak kobratu, eta ateratako guztia misioetara bidaltzen zuten. Ondoko argazkia horrelako ekitaldi baten ateratakoa da.

1947. urteko urriaren 19a Domund Eguna izan zen, eta gaur egun moduan, Hirugarren Munduari eta misioetan zeudenei laguntzeko dirua batzen zen

orduan. Parrokiako neska-mutilek Japoniako misio baten historia antzeztu zuten, gainera. Batzuk hango jantziekin mozorrotu eta beste batzuek misioetako lekaime moduan egin zuten antzerkia. Argazkia utzi digun andrea ondo akordatzen da orduko antzerkirako sarrera zenbatekoa izan zen. Hamar duro kobratu zitzaizen ikusleei. Eta haren esanetan, parrokiako saloia bete-beteta egon zen.

Egunero izaten zuten entsegua. Eta batzuek antzerkia zelan egin pentsatu bitartean, beste batzuk jantziak josten ibiltzen ziren. Argazki zahar honetan azaltzen

diren traje dotoreak, esaterako, Regina Elejaldek josi eta eginikoak dira.

Argazkian, goiko leerroan, eta ezkerretik hasita: Maria Josefa Uribetxebarria, Marilu Garate, Clotilde Zubizarreta, Ana Mari Etxabe, Aintzane Urreta eta, azkenik, Miren Zuazabeitia.

Erdian, berriz, Rosario Uribesalgo, Maria Luisa Zuazua eta Kontxita Peña daude.

Azkenik, behealdean, Miren Igartua, Arantxa Antxia eta Elena Perea.

**Argazkia:** Miren Zuazabeitia  
**Informazioa:** M. Zuazabeitia  
**Urtea:** 1947



NOLAALDATUDIRENGAUZAK

## Kuartel inguruko errepideak

**H**amabi urtean asko aldatu dira herrietako bideak, duda barik. Horren adibide da garai bateko kuartel inguruan zegoen bidea. Aspaldiko zuhaitz eta ingurune berdeek auto-bideei eta etxebizitzeei utzi diete lekua. Gainera, egindako bideak ez dira edozelakoak. Marra zuri, biribil eta zirkulazio seinalerik ez da gaur egun falta kuartel inguruko bidegurutzean.



± 1989

Orain dela hamabi urte, asfaltatuta bakarrik zegoen bidea aurki genezakeen Guardia Zibilen kuartelaren parean.




2001

Gaur egun, bidea zabaldu eta margotuta egoteaz gain, kuartela inguratzen duen lekuan espaloia jarri eta etxebizitza gehiago egin dituzte.

### SADHANA YOGA ETA PSIKOTERAPIA ZENTRUA

- Yoga
- Bioenergetika
- Psikoterapia (taldea eta indibiduala)



Lezama komertzial zentrua - Santa Kurtz, 24  
20550 ARETXABALETA  
Tel.: 616 965 795




Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita  
ESKORIATZA

### Maritxu drogeria mertzeria

Araba Ibilbidea, 24  
Tel.: 943 79 23 53  
ARETXABALETA

### IBARRA estankoa



PRENTSA ETA IKASMATERIALA  
Egunero zabalik  
Bizkaia, 3 Tel.: 943 79 23 77  
ARETXABALETA



# Ze barri?

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2001eko urriaren 26a / 54. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana, 11 2550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri?@goiena.com

## Euskal jolas eta kantu ikastaroa arrakastatsua herrian Hik Hasiren eskutik

AINTZANE GARDOKI

Eskoriatzako Udal Euskara Zerbitzuak antolatuta, eta Hik Hasiren eskutik, euskal jolas eta kantu ikastaroa egiten ari da 32 lagunez osatutako taldea. Joan den asteburuan hasi, bihar, zapatua, jarraitu eta datorren astean jolas festa batekin amaituko da ikastaroa.

Hik Hasi taldeko Harkaitz Izagirrereren eta Leire Elicesen eskutik ari dira jolasak eta kantuak euskaraz ikasten Eskoriatzan. Azkeneko hiru urteetan, Euskal Herri osoko ikastola, eskola eta euskaltegietan etengabe ibili dira ikastaro horren berri ematen.

Helburua oso argi dute Gizarte Hezkuntzan eta Irakasle Ikasketatan diplomadunak diren bi gazteok: "Umeak euskaraz jolastea, horrela, euskal jolasa sustatu eta Euskal Herriko azken txoraino helarazteko".

### PREMIA IZUGARRIA

Duela urte batzuk, umeek gaztelaniaz jolasten zutela jabetuta eta euskaraz aritzeko zegoen premia handiari erantzuna eman nahian, Hik Hasi taldea materiala batzen



Umeek bezain ondo pasatu dute nagusiak jolasean

AINTZANE GARDOKI

eta sortzen hasi zen. Eskoriatzan batutako ama, ikasle eta irakasleek hirurogeita hamar jolas eta kantu ikasiko dituzte guztira. Harkaitz Izagirrereren esanetan,

"ikastaroa umei zuzenduta dago, nahiz eta gu zuzenean guraso eta hezleekin jardun; kontua da hemen ikasitakoak gero umeekin landuko dituztela."

Bi arduradunak bat datoz ikastaroan parte hartzen duten guztiek asko disfrutatzen dutela esaterakoan. "Nagusiak ahaztuta izaten dituzten eta euren mun-

*"Umeek euskaraz jolastea dugu helburu, euskal jolasa sustatu eta ezagutaraztea"*

ditik urrutik gelditzen zaizkien jolasekin topo egitean oso ondo pasatzen dute."

Hogeita hamabi ikasle, ama eta hezle elkartu dira ikastaroan. Batzuek begirale izateko premiazkoa ikusten dute euskaraz ondo jantzita egotea, beste batzuek ikasleei jolas berriak erakutsi nahi dizkietelako, eta beste askok euren seme-alabekin euskaraz jolatu gura dutelako. "Azken baten, ikusten denez guztiok daukagu euskaraz jolatu ahal izateko hutsune handia, horregatik etorri gara hona".

Bihar, zapatua, bigarren saioa egingo dute joan den astean hasi ziren lagunek, eta datorren zapatuan, azaroaren 3an, ikastaroa bukatzeko, umeekin batera jolas festa egingo dute, goizeko 10:00etatik aurrera.


## ATREBENTZIAEZPADA/ Dagoen kultura eskaintza nahikoa da?



**AINITZE LUCERO**  
Ikaslea

Azken boladan hobetu egin da, baina hutsuneak ere badaude, batez ere, gazteei dagokienez.

Egia da gero jendeak ez duela parterik hartzen.



**CIRILO PEREA**  
Langilea

Sekula ez dago ekintza nahikorik. Laguntza handirik ere ez da izaten herri txikietarako. Nik faltan igartzen ditut herri dantzak, adibidez.




**MAITE BEITIA**  
Langilea

Eskaintza badago. Informazioa ere heltzen da, baina parte hartzea urria da. 30 urtetik gorakoak gara, eta beti berdina, parte hartzen dugunak.



**ANTXON LECETA**  
Langilea

Udazkenean gauza asko dago, bestela gutxiago. Egia esan, ez diot kasu larregirik egiten. Ez dut parte hartzeko ohitura.



**J.C. ZUBIA**  
Langilea

Ona da. Asko hobetu da azken urteetan, baina ezin gara hori dela eta lo gelditu. Zinerik ez dago eta 9-16 urteko gazteen-dako ez dago ezer.

## LABUR

### Odol emaile gehiago aurten HUHEZIn

Urtero bezela Arabako Odol Emaileen Elkarte, Humanitate Fakultatean izan da. Guztira 70 lagun hurbildu ziren odola ematera, iaz baino 13 gehiago. Hala ere hainbat arrazoi tarteko, 19 lagun odola eman ezinik geratu ziren.

Azkenean, 51 lagunek eman zuten odola, eta horietatik 18k, lehen aldiz eman zuten.

Datorren urteko martxoaren 13an berriro izango da Humanitate Fakultatean Arabako Odol Emaileen Elkarte.



**TELEFONOJAKINGARRIAK**

**ESKORIATZA**

Udaletxea.....	943 71 44 07
Udal Bulegoak.....	943 71 45 32
Udaltzaingoa.....	943 71 44 07
Euskaltegia.....	943 79 21 68
Kultur Etxea.....	943 71 46 88
Gizarte-Laguntzailea.....	943 71 31 36
Kiroletxea.....	943 71 53 28
Liburutegia.....	943 71 31 35
Luis Eceiza.....	943 71 53 56
Jose Arana-Almen Ikastol.....	943 71 44 86
Almen.....	943 71 49 07
Museo-Eskola.....	943 71 54 53
Axtroki?.....	943 71 40 77
HUHEZI.....	943 71 41 57
Osakidetza.....	943 71 44 52
Telesko.....	943 71 49 17
Taxia.....	943 71 40 59

**BESTELAKOAK**

Eskualde Ospital. (Arrasate)...	943 00 53 00
Gurutze-Gorria (Bergara).....	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate).....	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati).....	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga).....	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz).....	945 23 20 30
Pesa (Arrasate).....	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate).....	943 77 10 43
SOS Delak.....	112

**OHARRAK**

**LHT.REN AURKAKO SINADURA BILKETA**

Lastertasun handiko trenaren kontrako sinadurak bilduko dira asteburuan Eskoriatzan; larunbatean egun guztian, eta igandean, goizez.

**EUSKAL HERRIA ETA DINOSAURUAK ERAKUSKETA**

Urriaren 31tik azaroaren 18ra, Kultur etxeko Aretoan.Ordua;18:30/20:30.

**EZKURTZO, ZARIMUTZEN**

Urriaren 27an arratsaldeko hiruretatik zazpirak bitartean. Ipuin kontaketa, tailerrak, txokolatada...Jose Arana ikastolak antolatuta.

**AXTROKIRENAGENDA**

**BAZKIDE KANPAINA**

Gaur, Anje Dualdek, gaueko 22:30ean, Ganuzan eskainiko duen kantaldian Axtroki Euskara Elkartearen bazkide izateko aukera izango du bertara hurbiltzen den orok.

**KIROLA**

**Lehenengo Futbito Txapelketa hasi da Gazte Asanbladak antolatuta**

AINTZANE GARDOKI

Herriko zortzi taldek hartuko dute parte Gazte Asanbladak antolatutako Lehenengo Futbito Txapelketan. Guztira, 17 eta 25 urte bitarteko ehun gazte baino gehiago ibiliko dira astebururo futbitoan, batzuk besteen kontra.

Orain baino lehenago egiten zen futbito txapelketa, Kirol Elkarteak antolatuta, baina azkeneko hiru urteotan ez da txapelketarik egin. "Hutsunea sentitzen genuen gazteok, zapatu arratsaldetan denok elkarrekin zerbait egin nahi genuen, eta Gazte Asanbladatik txapelketa berriro abiaraztea pentsatu genuen", azaldu digu antolatzaileetarik batek, Haritz Oiangurennek. Lehenengo jardunaldian golik ez da falta izan, eta bizi izan den giroa ezin

*"Gazteok hutsunea zegoela nabari genuen, eta elkarrekin egiteko zerbait nahi genuen"*

hobea izan dela jakinarazi digute. **Emaitzak**, ondokoak: Ardechauen 6 - Ekipoactimel 5 Sarabia eta Dinarama 6 - ? 4 Proyecto Gil 9 - Alzaporr 2 Ezaro 0 - Agroscate 1 **Datorren zapatuko partidua:** Ekipoactimel -Agroscate Ezaro - Ardechauen Sarabia eta Dinar.- Proyecto Gil Alzaporr - ? Arratsaldeko 15:30ean hasita.



Zortzi talde ari dira parte hartzen EGASEk antolatutako futbito txapelketan.

**HURRETIK/ Ibon Segura · Udaltzaina**

*"Aste honetatik aurrera multak jarriko dizkiet gaizki aparkatutako automobilerik"*

**I**bon Segurak duela bi hilabete ekin dio udaltzain lan berriari. Eskoriatzarra da, 27 urte ditu eta SHEEn lizentziaduna da.

**Nolatan kirol teknikaria izatek udaltzain izatera?**

Herrian bertan lanpostua izateak erakarri ninduen. Jende mordo aurreztuko zela pentsatu nuen, eta ezinezkoa izango zela. Baina hemen nago. **Eta zer moduz moldatzen zara?** Oso gustura. Denetarik egin behar izaten dut: zirkulazioa zuzendu, herritarrei lizentziak eraman, Udaletxeko postaz arduratu, auzoetara jo, herritarren kexak jaso... ez daukat aspertzeko astirik. **Herria beste modu baten**

**ikusten duzu orain?** Herriko umeak ezagutzen hasi naiz, nahiz eta bat baino gehiagorendako "txapeladuna" izan. Jendearekin duzun hartumana ere handiagoa da. Orain, jende askok agurtzen nau, udaltzainarekin ondo konpontzea hobe dela pentsatuko dute, agian. Udalak egiten duen lanaz ere jabetu naiz. **Lagunak ere ondo aparkatzen hasi ei dira dagoeneko.** Bai, eta aurrera begira hobe dute, izan ere, aste honetan multak jartzen hasi gara. **Zure aurretik 30 urtez egon zen Leopoldok ez zuen isun bakar bat jarri. Fama txarra hartuko duzun beldur?** Ez dut espero.Gero eta auto gehiago dago, eta gero eta



komodoagoak gara. Autoa ondo aparkatzeaz kontzientziatu egin behar gara. 125 abisu jarri ditut orain arte. **Udaltzain euskalduna izatea eskertzen dute herritarrek?** Bai. Herritar asko etortzen zaizkit eta lehen hitza gaztelaniaz egiten didate, nik euskaraz erantzuten diedanean, "ene, euskalduna da" esaten dute. **Laguntzailea ere baduzu dagoeneko.** Plazan izaten diren bi erretiratutako goizero informea pasatzen didate; herrian gertatzen denaren berri haiek ematen didate. Baina aginduak ematen ere badakite; alkateari banku berriak jartzeko esan eta esan ibiltzen dira. Abisua pasatuta dago!

**CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA**

**AZKOAGA ESTANKOA**

*Zure Zerbitzura*

**ESTETIKA ESPEZIALIZATUTAKO ZENTRUA**



**EDURNE**

Aranburuzabala, 42  
Tel.: 943 71 51 54  
ESKORIATZA



# Ludoteka zabalik da Gatzako umeen gozamenerako

AINTZANE GARDOKI

Gurel-ek, Gatzagako Guraso Elkartek, aisialdia euskaraz bultzatzea du helburu sorrerazorreratik. 55 kide ditu egun elkartek. Ekintzak gero eta gehiago dira, tartean ludoteka, 14 urte bitarteko umeek zabalik dutena dagoeneko.

1987an Garro kultura etxea inauguratu zenean, abian jarri zen lehenengo aldiz ludoteka. Herriko gazteak arduratzen ziren garai hartan umeen ekintzekin. "Aisialdia euskaraz bultzatzeko premia gero handiagoa zen. Txatxilipurdi bi urtez aritu ondoren, Gurel sortzea erabaki genuen, eta ekintzak herritik bertatik bultzatu", dio Periko Orobengoa Gurel-eko presidentek.

Bi urte badira ludoteka gura-

so elkartek kudeatzen duela. "Jolasa, antzerkia, ipuinak... ludotekan herriko umeen arteko harremana bultzatu eta aisialdiaz taldean disfrutatzea nahi genuke", azaltzen du Orobengoa.

## EGUNERO ZABALIK

Aurten, bi talde egin dira umeen adinaren arabera: batetik, 8 urte bitartekoak, eta bestetik, 9 urtetik 14 bitartekoak. Ludoteka egunero egongo da zabalik, txikiendako astelehen, eguazten eta egubakoitzetan, eta nagusienentako martitzen, eguen eta egubakoitzetan.

"Erantzuna ume guztiei ematea ez da bat ere erreza, batez ere nagusienak eskolaz kanpoko ekintza ugari izaten dute-eta Gatzagatik kanpo; hala ere, ume horiek herrian bertan parte har-



Majo disfrutatzen dute Gatzagako txikiak

AINTZANE GARDOKI

teza garrantzitsua dela uste dugu. Iaz, nagusien artean sumatu zen parte hartzea gutxitu egin zela, eta horri irtenbide bat eman

guran ari gara Gurel-en".

Rosa Sánchez Pedagogian lizentziaduna arduratuko da ikasurte honetan ludotekaz eta libu-

rutegiaz. Umeak pozik hasi dira eta Rosak ere adierazi digu indartsu datorrela. Umeak euskaraz jolasean ikustea du helburu.

## NOLA ALDATU DIRENGAUZAK

### Diligentziaren errepidea egun Gatzagan

Nola aldatu diren gauzak bada ere atalaren izena, eta itxura baten argazkiari begiratuz aldaketa handiak nabari badira ere, ezin esan Gatzagako errepidean gauza asko aldatu direnik azkeneko ehun urteotan. Aspaldiko diligentzia zaharra pasatzen zen leku beretik, inolako berrikuntzarik egin gabe, gaur ehunka eta ehunka auto baino gehiago pasatzen da.



± 1930

Trena Eskoriatzaraino heltzen zen; han diligentzia hartu eta poliki-poliki Gatzagako portuari ekiten zioten bidaiariek.



2001

Orain, aldiz, ez dago, ez, poliki joaten denik. Orduetik hona metro erdi zabaldu ez den errepidean, 6.000 autotik gora pasatzen da egunero.

## HERRITARREN HITZA / Dorleta Elkorobarrutia

### Bagara?

Printzipioz denok daukagu argi zer garen: solidarioak gara, kritikakoak gara... baita zer ez garen ere: ez gara arrazistak, ezta xenofoboak, ezta insolidarioak... Denok nahi genuke munduan goserik ez egotea, emakumearen egoera hobetzea, marjinalizazioa desagertzea... Arazo hauei guztiei buruz egunero makina bat albiste irakurri edo entzuten ditugu. Gaur irakurri dut etxerik ez dutenentzat zentro bat ireki dutela, baina hau ez zen albistea, notizia da bertako biztanleek horren kontrako protesta egin dutela. Horrelako-

ak entzuten ditugunean, daukagun sentimendu solidarioagatik protestan jarri diren horiek kritikatzeko ditugu. Baina zer gertatzen da gosea daukana gure etxera ate joka datorrenean? Eta, etxe-gabeko bat toki bero baten bila dabilenean?... Non gelditzen da orduan gure solidaritate eta injustiziak kritikatzeko grina? Ziur nago denok izan garela noizbait Hirugarren Munduko, gosearen aurkako edo euskal



"Egiten ez duguna justifikatzeko ahalmena daukagu"

presoen aldeko kontzertu edo jaialdi batean, baina zenbat aldiz hitz egin dugu inmigrante batekin, jaten eman gose denari edo eskutitz bat bidali hemengo berri jakin nahi duenari? "Gu" ez direnak egiten dutena kritikatzeko izugarriko gaitasuna daukagu, baita guk egiten ez duguna justifikatzeko ahalmena ere. Ez zaigu, ordea, hain erraza egiten gainontzekoak justifikatzea edo

gurea kritikatzeko. Zeren besteen faltak justifikatzea askotan gure autokritika egitea baita. Eta erreflexio hori egiteko gai ez baldin bagara, esan dezakegu solidarioak eta kritikakoak garela? Agian galdera hau aldamenean daukagun eta gure solidaritate eta laguntza behar duen horri egin beharko genioke. Bere erantzunak erreflexionatzera bultzatuko gintuzke. Baina horrelako erreflexioak ez dira atseginak, eta atsegin ez duguna baztertzeko joera dugunez, askotan ez garena garela pentsatzen jarraitzen dugu. Baina bagara?

## LABUR

### Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak gaurkotu

Beste herrietan moduan, aste honetan hasi eta datorren abenduaren 28 arte, gatzatar guztiek biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak osatu edo eguneratu beharko dituzte.

Etxe eta baserri guztietan Udaletik bidalitako gutun-azala jasoko da. Datuak ondo daudela ziurtatu, sinatu eta Udaletxera bueltatu beharko da berririo gutun-azala.


Biztanleriaren zentsua bost urtean behin eguneratzen da, eta etxebizitzaren zentsua, berriz, 10 urtean behin.



# 1980tik zuen zerbitzura



liburutxoak, sobreak, pegatinak, kalendarioak, kartak, fakturak, poltsak, tarjetak, katalogoak, triptikoak, publizitatea, jai egitarauak, kartelak, albaranak, aldizkariak, errekoratorioak,



## EGUZKIGRAF inprimategia

Arexabaletako Industrialdea F-0-4  
Araba Ibilbidea  
20550 ARETXABALETA  
Tfnoa.: 943 791844 / Faxe: 943 792941  
info@eguzkigraf.com

**FRUITATEGIA**

Barazki eta frutetan espezialitatea

Tel.: 943 79 96 43

**ERREKABARREN**

**ILEAPAINDEGIA**

**irudi**

ILE APAINDEGIA  
ESTETIKA  
SOLARIUMA

Tel.: 943 79 80 90

**IRUDI**

**URDAITEGIA**

kalitatezko produktuak

Tel.: 943 79 75 42

**JUANTXO**

# ERREKABARREN

**DROGERIA**

GUSTU GUZTIETARAKO ZAPIAK

Tel.: 943 79 78 63

**LEINTZ-ROSI**

**OINETAKO DENDA**

ZAPATEN KONPONKETAK EGITEN DIRA

Tel.: 943 79 59 85

**MARI KARMEN**

**ARRANDEGIA**

ITSASOKO PRODUKTUAK

Tel.: 943 79 31 59

**MIREIA**



# GRUPO **RKUZ**

1950-2001



Araba Etorbidea 5 •  
Tel. / Faxa: 943 79 41 82  
**ARRASATE**



Araba etorbidea 20 •  
Tel. / Faxa: 943 79 23 51  
**ARETXABAETA**



Asunción, 1 •  
Tel. / Faxa: 943 79 10 97  
**ARETXABAETA**



Mitarte 3 •  
Tel. / Faxa: 943 77 04 55  
**ARETXABAETA**



**50 urte baino gehiago gure bezeroen zerbitzura.**

**Eskerrik asko emandako konfiantzagatik**